

2010eko abenduaren 21ean, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak izandako batzarrean, besteak beste, ondokoa erabagi dala:

DROGAMENDEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAREN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Drogamendekotasunen prebentziorako zerbitzuaren behin behineko esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko azaroaren 9an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia batu da Drogamendekotasunen prebentziorako zerbitzuaren esleipenerako proposamenak aztertzeko. (Prebentzio unibertsala + selektiboa)

Bigarrena: Etorkintza elkargoa izan da proposamena aurkeztu dauan bakarra beraz, dokumentazio guztia zuzen aurkeztuta egon danean proposamen ekonomikoa aurkezteko gonbidapena bialdu jake 15 egun naturaleko epean.

Hirugarrena: 2010eko abenduaren 3an, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko kontratazio mahaia proposamen ekonomikoa aztertu dau. Etorkintza elkargoak 59.940 eurotako proposamena egin dau BEZ barik (Elkargo hau BEZatik salbuetsita dago). Proposamen hau lizitazio prezioaren barruan dagoenez, kontratazio mahaia aipatutako zerbitzua Etorkintza elkargoari behin behingoz esleitzea proposatu dau 59.940 eurogaitik.

Argudioak

Espedientea behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Drogamendekotasunen prebentziorako zerbitzua behin behingoz Etorkintza Elkargoari esleitzea 59.940 eurogaitik urte baterako, hau da, 2011ko otsailaren 1etik 2012ko urtarrilaren 31rarte.

Bigarrena: Behin behineko erabagi hau Bermeoko web orrian publikatuta egotea 15 egunetan.

Hirugarrena: 15 eguneko epean behin betiko bermea jartzeko eskatzea Etorkintza Elkargoari

